



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2007ko martxoaren 9a

23. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—18/2006 Foru Legea, abenduaren 27koa, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Akats zuzenketa (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da behar diren urratsak egin ditzan Arcelor enpresarekin haren jabetzako lurzorua jabari publikoari itzultzeko, industrialde bat sortzeko. Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).

—Adierazpen instituzionala, martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna, dela-eta. Eledunen Batzarrek onetsia (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Nafarroako Gobernuak erabilera bereziko araubideari atxikiriko funtzionarioei osasun laguntzako gastuak itzultzeari buruzkoa, foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren Ribas andreak egina (5. or.).

—Galdera, 35/2002 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapenaren egoerari buruzkoa, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (6. or.).

—Galdera, Etxebizitza Planari buruzkoa, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (6. or.).

—Galdera, Nafarroako sinboloei buruzko 24/2003 Foru Legea garatzeko erregelamendua ez emateko arrazoiei buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (7. or.).

—Galdera, Nafarroako Larrialdietarako Agentziari atxikitako suhiltzaile-ofizial batzuek aurkezturiko kexa dela-eta arartekoak eman duen gomendioari Nafarroako Gobernuak zer bide emanen dion jakiteko, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (8. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

18/2006 Foru Legea, abenduaren 27koa, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.

AKATS ZUZENKETA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko 18/2006 Foru Legean akats bat atzeman da. Legea 2006ko abenduaren 29ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Horrenbestez, ondoko zuzenketa hau egin da aipatu foru legean: 70. orrialdean, abenduaren 27ko 18/2006 Foru Legeko 6. artikuluko hamaseigarren idatz-zatiak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko eta haren Era-

kunde Autonomoetako Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Foru Legeko 146. artikuluari emandako testuan, 1.6 tarifan, arrainei buruzkoan: "0,12 euro kiloko" dioen tokian, hauxe esan behar du: "0,012 euro kiloko".

Iruñean, 2007ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren urratsak egin ditzan Arcelor enpresarekin haren jabetzako lurzorua jabari publikoari itzultzeko, industrialde bat sortzeko.

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren urratsak egin ditzan Arcelor enpresarekin haren jabetzako lurzorua jabari publikoari itzultzeko, industrialde bat sortzeko."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko martxoaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2007ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko eledun Begoña Errazti Esnalek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Gure erkidegoaren garapen endogenoa sustatzeko, batez ere Nafarroako iparraldean, beharrezkoa da garapen ekonomiko eta soziala ahalbidetuko duten azpiegiturak egitea.

Lesakan, Luberrondoko hegian industriarako zelaigune bat dago, gaur egun Arcelorrena dena, eta erabili gabe dago. Funtsezko elementua izan daiteke bertan industriarako lurzorua garatzeko.

Halaber, industria-lurzorua garatu ahal izateko beharrezkoa da Lesakako saihebidetaren bigarren fasea egitea; izan ere, gaur egun Arcelor lantegitik pasatzen da (zehazki, komentutik Lesaka/Oiartzun/Nabaz auzoa errepidearekiko bidegurutzeraino doan zatia). Era horretan, ibilgailu astunek saihevide hori erabiliko dute enpresa eta industria gunere horretarako sarbide gisa.

Horregatik guztiagatik, Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren urratsak egin eta buka ditzan Arcelorrekin, horrela gaur egun erabilerazko industrialik ez duen lurzorua berriro ere jabari publikokoa izan dadin, eta bertan industrialde bat sortzea ahalbidetzeko.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du industri lurzoru horretarako sarbide izanen den Lesakako saihebidetaren bigarren fasea sar dezan bere lehentasunezko ekintzen programan eta saihevide hori eraiki dezan.

Iruñean, 2007ko martxoaren 1ean

Eleduna: Begoña Errazti Esnal

Adierazpen instituzionala, martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna, dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2007ko martxoaren 5ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Eskubide ukaezin gisa aitortzen du emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna.

2. Bere konpromisoa agertzen du emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren printzipioa epe laburreko erronka izan dadin.

3. Aipaturiko egunak iradokitzen duen gogoeta egiteko gonbita egiten du, egiazko berdintasuna lortu gabe baitago.

4. Bat egiten du Guztiontzako Berdintasunaren Urtea deritzon Europar Batasunaren ekimenarekin.

5. Bat egiten du egun hau ospatzeko antolatzen diren jarduera publiko guztiekin.

6. Apustu egiten du Espainiako Gobernuarekin lankidetzan instituzionalean jarduteko, nor bere eskumenen esparrutik, Emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasunerako Legean jasotako neurri guztiak garatu eta aplikatzeko langintzan, emakumeen bizi-baldintzak hobetze eta bi sexuen

arteko egiazko berdintasuneranzko aurrerapausoak emate aldera.

7. Beharrezkotzat jotzen du autonomia erkidegoetako estatistika ofizial guztietan txertatzea sexuen arabera xeheaturiko datuak, bideraturiko baliabide publikoen onuradunen egiazko egoera ezagutu ahal izateko eta, beraz, baliabide horiek jasoko dituztenengan modu zehatzagoan eragiteko neurri zuzentzaileak aplikatu ahal izateko.

8. Foru erakundeak eta gizarte zibila ahalegin berezia egitera gonbidatzen ditu, Nafarroako administrazioetatik ateratako dokumentu guztietatik hizkera sexista ezabatzeke.

9. Genero-indarkeriari buruz ohartarazteko eta haren aurka sentsibilizatzeko kanpaina autonomi-koen aldeko jarrera hartzen du. Kanpaina horiek gizarteko sektore guztien esku-hartzea sustatu behar dute, hezkuntza-komunitatearena eta, batez ere, hedabideena, iritzi-sortzaile nagusi diren aldetik laguntza eraginkorra eman ahal baitute emakumeen aurkako indarkeria legitimatzen duten kultur estereotipoak auzitan jartzeko”

Iruñean, 2007ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gobernuak erabilera bereziko araubideari atxikiriko funtzionarioei osasun laguntzako gastuak itzultzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI M.^a GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko martxoaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren Ribas andreak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak erabilera bereziko araubideari atxikiriko funtzionarioei osasun laguntzako gastuak itzultzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren Ribasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Kezka sortu da erabilera bereziko araubideari atxikiriko funtzionarioei osasun laguntza ordaintzerakoan gertatzen ari den atzerapenak eragindako egoeratik; izan ere, kasu batzuetan, gobernuak langile horiekin dituen zorrak hainbestekoak dira non interesdunen oreka ekonomikoari arazoak ekartzen baitizkiote, dagozkien kopuruen itzulketetan izandako atzerapenetako batzuk urtebeterainokoak ere baitira.

Horrenbestez, 2003, 2004, 2005 eta 2006. urteei buruzko galdera hauei erantzutea eskatzen dugu:

– Gobernuak zenbat denbora behar izan du, osasun eta farmazia laguntzaren fakturak edo ordainagiriak aurkeztuz geroztik, itzulketen kopuruak interesdunei ordaintzeko?

– Itzuli beharreko kopururik handiena zenbatekoa da, eta zenbat denbora behar izan du itzulketak egiteko, agiriak jaso zituenetik?

– Funtzionarioak alde aurretik ordaindutako kopurua berehala itzultzeko, ba al dago zenbatekoaren inolako mugarik?

– Sistema honen araberako itzulketei dagokienez, ba al dago konparaziozko analisirik zenbatekoak, ukituriko pertsonen kopurua, mailak eta itzulketa egiteko denborari buruz? Bai legegintzaldi honetako itzulketen artekorik, bai legegintzaldi honetakoen eta aurreko legegintzaldietakoen artekorik ere? Halakorik baldin bada, kasuko dokumentazioa helaraz bedi.

– Zer arrazoi dela-eta, halakorik baldin bada, kontzeptu horien ondoriozko kopuruak ez dira bueltatzen, gehienez ere, agiriak aurkeztu ondoko hilabeteetan?

Iruñean, 2007ko martxoaren 1ean

Foru parlamentaria: M.^a Gracia Iribarren Ribas

Galdera, 35/2002 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapenaren egoerari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko martxoaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egindako galdera, 35/2002 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapenaren egoerari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Legegintzaldi hau amaitzear dagoenean, eta gobernuaren jardunik ustez izan ez duten esparru garrantzitsuak badaudenez gero, parlamentari honek eskatzen du honako galdera hauei erantzuna eman dakiela:

– Zein egoeratan dago 35/2002 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapena?

– Gobernua zer neurri hartzen ari da etxebizitzak zaharberritzean eta etxebizitza berriak eraikitzean eraikuntza-kode teknikoaren aplikazioa eta energia berriztagarrien erabilera sustatzeko?

– Zer neurri ezarri ditu babes ofizialeko eta prezio tasatuko etxebizitzan eraikuntza-baldintzak arauen bitartez garatzeko, eraikuntza-teknikei, material ez-kutsagarrien erabilerrari, erosotasunari, energia-efizientziari eta baliabide naturalak aurrezteari dagokienez?

Iruñean, 2007ko martxoaren 1ean

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, Etxebizitza Planari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko martxoaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egindako galdera, Etxebizitza Planari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak idatziz erantzun dezan:

du eta Etxebizitza kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Etxebizitza plana ez da Parlamentura aurkeztu, eta gobernuak hura onetsi izanaren konstantziarik ere ez dago. Hori horrela, honako galdera hauei erantzutea eskatzen da:

– Zer eragile ekonomiko eta soziali buruz ari da kontseilaria, esaten duenean etxebizitza plana 2005ean helarazi zitzaioela, hura aztertzeke? Zehazki, zeini helarazi zitzaion, eta nork helarazi zion?

– Departamentuak 2005eko martxoan helarazitako etxebizitza planak ukituriko eragile ekonomiko eta sozialek erantzun dute, edo jarrerarik hartu dute? Baiezkoan, eragile horiek gai honi buruz adierazitako oharrak jasotzen dituzten txosten edo dokumentuak eduki nahi nituzke.

Iruñean, 2007ko martxoaren 1ean

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, Nafarroako sinboloei buruzko 24/2003 Foru Legea garatzeko erregelamendua ez emateko arrazoiei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko martxoaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, Nafarroako sinboloei buruzko 24/2003 Foru Legea garatzeko erregelamendua ez emateko arrazoiei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legearen 2.2 artikulua ezartzen duenez, sinbolo horiek "produktuen edo saleros-

keta gaien jatorriaren adierazgarri gisa erabiltzeko aukera, hala nola alderdi politiko, sindikatu, enpresari-elkarte edo entitate pribatuen sinbolo edo logotipo gisa erabiltzekoa, erregelamenduz arautuko da. Erregelamendu hori Nafarroako Gobernuak ezarriko du."

Hala eta guztiz ere, foru lege hori argitaratu zenetik iragan den denboran, ez da inongo erregelamendurik egin hura garatzeko. Hori guztia dela eta, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzun diezaien nahi dut:

Zergatik ez da egin aipaturiko erregelamendu hori? Gobernuak erregelamendu hori onesteko asmorik ba al du? Zer-nolako kontrol egiten du gaur egun Nafarroako Gobernuak, Nafarroako sinboloak produktuen edo salgaien jatorriaren adierazgarri gisa erabiltzeari eta alderdi politiko, sindikatu, enpresari-elkarte edo entitate pribatuen sinbolo edo logotipo gisa erabiltzeari dagokionez?

Iruñean, 2007ko martxoaren 1ean

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

Galdera, Nafarroako Larrialdietarako Agentziari atxikitako suhiltzaile-ofizial batzuek aurkezturiko kexa dela-eta arartekoak eman duen gomendioari Nafarroako Gobernuak zer bide emanen dion jakiteko.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko martxoaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak egindako galdera, Nafarroako Larrialdietarako Agentziari atxikitako suhiltzaile-ofizial batzuek aurkezturiko kexa dela-eta arartekoak eman duen gomendioari Nafarroako Gobernuak zer bide emanen dion jakiteko. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Larrialdietarako Agentziari atxikitako suhiltzaile-ofizial batzuek aurkezturiko kexa dela-eta, arartekoak iradokizun bat bidali dio Nafarroako Gobernuari, "Prebentzio, Su-itzaltze eta Salbamendurako Zuzendaritza operatiboki egituratu deneko esparru funtzionaletako bakoitzean ofizial eta ofizialordearen eginkizunak zehaztasun handiagoz ezar daitezen, bai eta, kasua bada, gainerako lanpostuen eginkizunak ere".

Arartekoak iradokizun hori egiten du honakoa egiaztatu ondoren, Nafarroako Larrialdietarako Agentzia sortzen duen ekainaren 19ko 38/2006 Foru Dekretuari dagokionez: "foru dekretuak, legearen ezinbesteko osagarri gisa, Nafarroako Gobernuari aukera ematen dio garatzen duen legearen funtsezko arau-edukiari eragiten ez dioten antolaketa eta prozedura arauak ezartzeko, lege horren arauak zehazteko, lauso eta osatu gabe diren heinean, eta balizko akatsak arintzeko, baina inola ere ezin du legearen edukiaren kontra joan edo eduki hori de facto indargabetu, eta horrelaxe gertatzen da 38/2006 Foru Dekretuarekin, ofizialorde lanpostuari esleitzen baitio legeak suhiltzaile-ofizialentzat gordetzen duena. Beraz, erakunde honen iritziz, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legeko 56.2 artikuluan ezarritakoa urratu egiten da. Izan ere, artikulua horrek honela dio: "Erregelamenduek ezin diete kontra egin... gainerako legeei edo goragoko mailako xedapen orokorrei".

Hori guztia dela eta, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzun diezaien nahi dut:

Zer bide emanen dio arartekoaren gomendio horri? 38/2006 Foru Dekretua aldatzeko asmorik al du, 8/2005 Foru Legeari kontra egiten dion neurrian?

Iruñean, 2007ko martxoaren 1ean

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Beloso

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urtebete 45,15 euro Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,18 » Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,34 »</p>	<p>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA</p>
---	--